

## GIL 51 Lozako sinklinaleko aintzira-kareharriak



Aintzira-kareharrien paketeak herritik bertatik ikusten dira; modu diskordantean kokatuak daude, eta horizontalak direlako nabarmentzen dira lurrean.

### Kokapena

- **Koordenatu geografikoak:**

Lat.: 42° 38' 32,58 " N

Long.: 2° 40' 47,76" W

- **UTM koordenatuak:**


X: 526.238,88 m

Y: 4.721.153,10 m



### Nola iritsi

Gasteiztik abiatuta, A-4128 errepidea hartu behar da, eta, ondoren, A-2124 errepidetik segi, Urizaharrerantz. Trebiñu zeharkatzean, BU-750 da errepidea. Urizaharrera iristean, herrian sartu aurretik dagoen saihesbidea hartu behar da, ekialderantz. Bi kilometro egin ondoren, Lotza herrira iristen da. Azaleramendua herriaren ekialdean dago, eta plataforma goratu bat osatzen du soro landuen inguruan.



Lotzako kareharrietan bildutako fosil batzuk. a) Krokodilo-hortzak b) Girogonitoak c) Arrain-otolitoak d) Gasteropodoak.

## GILaren deskribapen laburra

Paleogeno kontinentaleko erregistro estratigrafikoa, Eusko-Kantauriar arroan, alubioi-konglomeratuek eta aintzirako/zingirako segida karbonatuek osatzen dute, eta arroaren hegoaldeko mugako sinklinal batzuen eta graben motako azpiarro batzuen nukleoan azaleratzen dira. Lotzako Eozenoko aintzira-kareharriak Paleogeno kontinental horren erregistro onenetako bat dira. Era diskordantean kokatuak ageri dira, egitura sinklinal baten nukleoa osatzen duten Goi Thanetiarreko buztinen multzo baten gainean.

Aintzira-kareharriek 10-50 cm-ko geruzak osatzen dituzte; noizean behin, buztin karbonatutako geruza zentimetriko batzuk tartekatzen dira haien artean, eta, inoiz, geruza zuri bereizgarriak aurkitu izan dira. Geruza bigunago horien mineralogia % 80 kaltzitaz osatua dago, eta geruza zuriak, berriz, kaltzita hutsa dira. Kaltzitaren ondoan agertzen diren mineral buztintsu horien azterketaren arabera, aldi horretan klima beroa edo oso beroa zen.

Aintzirako maila horietan egindako ikerketa paleontologikoen arabera, asoziazio fosilak askotarikoak eta nahiko ugariak dira. Ornogabeetan ostrakodoak, gasteropodoak eta karofizeoak aurkitu dira, besteak beste; ornodunak ugariagoak dira, eta agertu dira arrain-otolitoak, hainbat narrastiren zatiak eta krokodilo-hortz ugari.

Bestalde, interes apalagoa izanagatik, aipagarria da aintzira-kareharri hauek E-W norabidea eta hegoalderanzko bergentzia duen sinklinal baten erdigunean azaleratzen direla; sinklinalaren iparraldeko alpeak okerdura handia du (50-70°) eta hegoaldeko alpeak txikia (10-30°).

## Behatzeko punturik onena

Kareharrien xehetasunak ikusteko, *in situ*; etena ikusteko, herritik.

## Erlazionatutako GILak

- **Geografikoki:** GIL 10, GIL 129, GIL 74, GIL 128.
- **Gaiari dagokionez:** GIL 128.

## GIL-aren balorazioa

Balorazioa		Baxua	Ertaina	Altua	Oso altua
Interes zientifikoa	Geomorfologikoa				
	Hidrogeologikoa				
	Tektoniko/Estrukturala		●		
	Estratigrafikoa			●	
	Paleontologikoa				●
	Petrologikoa				
	Mineral-hobiak				
	Beste batzuk				
<b>Interes ekonomikoa (erauzketa)</b>			Iraganean	Potentziala	Martxan
<b>Interes kulturala:</b>					
<b>Oharrak:</b>					

## Bibliografia espezifikoa

- Murelaga, X., Baceta, J.I., Anadón, P., Apraiz, A., Aranburu, A., Martin-Rubio M., Ortega, L.A., Rage, J.C., Tarrío, A., Zuluaga, M<sup>a</sup>.C., Wolf, D. eta Zubeldia, H.: "Lower Eocene lacustrine record in Loza (southern Basque-Cantabrian Basin): Biostratigraphic and paleoclimatic inferences". (Caballero F. et al., eds.) Climate and Biota of the Early Paleogene 2006. Volume of Abstracts. Bilbo, 168. or.
- EVE Bastida 170 I-III.
- MAGNA Haro (170).